

LEKEITIO. 2015-2019 LEGEGINTZALDIA

EH-BILDURI EGINDAKO ELKARLANERAKO PROPOSAMENA

Maiatzaren 24an burututako hauteskundeen ondorioz, ekainak 13an Lekeitioko udalbatza berria eratu zen EAJ-PNVko 7 zinegotzirekin eta EH-Bilduko 6 zinegotzirekin.

EAJ-PNVkoek Lekeitio suspertzeko helburuarekin, herriko elkarte eta talde guztiekin hitz egin ondoren, gogoeta prozesu sakon eta zabal bat egin zuten. Gogoeta hartatik, EAJ-PNVren programan agertzen diren hamar puntuak aurrera eramateko konpromisoa dute.

EH Bilduk ere bere programan agertutako proiektuak garatzeko herrigintzan oinarritutako oposizio eraikitzailea egiteko asmoa dauka.

Udala osatzen duten bi alderdien helburua, elkarriketa, eskuak zabalik izatea eta bien arteko akordioetara heltzea da. Alderdi biak eraikitzaileak izan behar dira, bakoitza lekiktarrek hauteskundeetan erabaki zuten lekutik.

Hartara, betiere hauteskundeen emaitzetan islatuta geratu zen indar korrelazioaren arabera proportzioan, herriko alderdi politiko bien programetako lehentasunak aintzat hartu ditzakeen gobernu akordio bat egitea posible ikusten dute alderdi biek. Horretarako, EAJ-PNV eta EH BILDUK, bakoitzarentzako ezinbestekoak diren ekintza eta proiektuak eta elkarlanerako baldintza eta koordinazio moduak zehazten dituen dokumentu bana proposatu diote elkarri. Dokumentu hauekin, akordio bakar bat osatzeko ahalegin egin nahi da dokumentu honetan.

HERRIAREN GARAPENA:

- ⤴ Lekeitioren ekonomia berpiztu; merkataritza, turismoa eta itsasoari lotutako jarduerak bultzatzea.
- ⤴ Turismo eredua jasangarria, soziala, urte osokoa, kalitatezkoa eta herriko kulturaren errota izan beharko litzateke.
- ⤴ Abaroa proiektua garatzea herri mailako garapen ekonomiko, kultural eta sozialerako proiektu estrategiko gisa (gaur eguneko norabidean sakondu, parte hartze prozesuan egindako diagnostikoaren eta proposamenen arabera eta etorkizunean izango denaren hausnarketa eta martxan jartzea). Ezinbestean arlo desberdinen arteko koordinazioa eman beharko litzateke (Ondarearen eta obraren inguruko ardura hirigintzatik, garapen ekonomikoaren ikuspegia garapen batzordetik, kultur garapenaren planteamendua kultur batzordetik...)
- ⤴ Elikadura burujabetza helburu izanik, Udal Merkatu Plazaren biziberritze planarekin jarraituko dugu, ekoizpen ekologikoan eta produktuen eraldaketan indar berezia jarri. Lur eremuak herritarren zerbitzura jarriko ditugu, ortu publikoak bultzatuz, eta ildo honetan lanean jarraitzea.

HIRI ANTOLAMENDUA ETA HIRIGINTZA

HAPO berria diseinatu behar den honetan, prozesu honen garapen parte-hartzaile erabakigarria martxan ipini. Bermatu benetan herritarrek erabakiak hartzeko gaitasuna edukiko dutela. Hiri

Antolamendurako plan orokor berria egingo da justizia soziala, ingurumenaren babesa, genero perspektiba eta euskararekiko errespetua bermatuz zeharlerro moduan.

- ⌄ Diagnostikoaren arabera herri plangintza zentzuzkoa burutu: (Datuen arabera eta herritarren beharrezkoen arabera).
- ⌄ Diagnostiko zehatza eta erreal egin. Lekittoko etxebizitza diagnostikoa osatu (benetakoa). Lekittoko dauden etxeen egoera-fitxa zehatza egin. Herritarren egoera sozioekonomikoa aztertu (gaitasun ekonomikoa, beharrezkoak...). Etorbizunera begirako plangintza erreal egin.
Kirol ekipamenduak eta zerbitzuak hobetu: inbertsio plan bat garatu eta etorkizunari begira kirol instalazioak batzeko proiektua landu.
- ⌄ Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikitzeke proiektua berreskuratu, eta gazteentzat zuzendutako alokairuko etxebizitzak eta gazteei zuzendutako etxebizitzaren alokairurako diru-laguntzak martxan ipini.
- ⌄ Bigarren etxebizitza alokairura bideratzeko politikak sustatu.
- ⌄ Lekeitioko eratzun berdea sortu: Santa Katalinako pasealeku berria bultzatu eta berratu, Gernikarako antzinako bidea oinezkoentzat egokituz, saihesbidearekin eta bide gorriarekin lotu.
- ⌄ Ondarearen azterketa eta zaintza lantzen jarraitzea. Ondarearen mantentzearen arabera erabakiak irizpide zientifiko eta teknikoaren arabera hartu. (Mendieta Ontziola alaitzen eraberritu, Abaroa gunea eraberritu, Kofradia zaharra...)
- ⌄ San Andres eta San Juan auzoak konpondu.

KULTURA

- ⌄ Kultura herriaren garapen ekonomikorako arlotzat hartuko da.
- ⌄ Nazioarteko Kale Antzerki jaialdian izandako bilakaerari eutsi eta sakontzen jarraitu eta Euskal Zine Bileraren bultzadan sakondu. Bien kasuan proiektuok kudeatzeko ereduak lantalde bitartezkoa izateko pausoak eman. Euskal Zine Bilerari dagokionez, urterokotasuna mantentzea, nazio mailako erantzukizuna dela eta. Eta bien kasuan ere, azkenengo urteetako maila mantentzea gutxienez.
- ⌄ Ikusgarri aretoko programazio kulturalaren bolumena mantentzea (Euskal Herriko Antzokien Sarean mantenduz, gutxienez).

GIZARTE ONGIZATEA

- ⌄ Gizarte babeserako eta egoera txarrean daudenentzako tresnak hobetu: Etxez etxeko zerbitzua eta zerbitzu sozialetarako harrera zerbitzuaren gunea hobetu.
- ⌄ Larrialdiko laguntzak bermatzea • Presoen senideentzako laguntza mantentzea.
- ⌄ Kontratu publikoetan klausula sozialak sartzea landu.
- ⌄ Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta babesteaz gain, gure eguneroko ekinbidean oinarri izango dugu

HEZKUNTZA

- ✧ Hezkuntza ekipamenduak hobetzeko inbertsio plan bat garatu eta gauzatu.
- ✧ Herriko curriculumak idatzi nahi dugu hezkuntza eragileekin elkarlanean. Horretarako, beharrezkoak diren bitarteko materialak eta pertsonalak jartzea.

KIROLA:

- ✧ Kirol zerbitzua: kudeaketan, berrantolaketan eta zuzendaritzan zerbitzua hobetzeko egokitzapenei eutsiko diegu

PARTE HARTZEA ETA HERRITARRAK

- ✧ Udal zerbitzuen antolamendua hobetu: Udal eta herritarren arteko harremana bultzatu, erraztu eta arindu. "Lekeitio zeure erara" parte-hartze ekimena bultzatu.
- ✧ Udaletxean arretarako leihatila bakarra jarriko da, herritarrei izapideak errazteko.

INGURUGIROA, ENERGIA, MUGIKORTASUNA

- ✧ Mugikortasun eta irisgarritasun plana bete eta eguneratu
- ✧ Garraio publikoa: Bilbo 60 minutu baino gutxiagora.
- ✧ Lekitarentzako aparkalekuak ziurtatu uda sasoian.
- ✧ Aurreko legegaldiko ingurumen batzordean adostutako irizpide eta minimoak bermatu hondakinen kudeaketari dagokionez. Eredu aldaketa planteatzen bada, ingurumen batzordean eztabaidatu beharko da eta teknikoki justifikatuta egon beharko da
- ✧ Energia alorrean urratsak ematen jarraitzea ezinbestekoa da, udal eraikinetan (Trinkete, eskoletako galdera...) hasitako lanari jarraipena emanez. Bereziki, efizientzia alorra landu behar da, gaur egungo gehiegizko kontsumoak murrizteko eta erregai fosiletatik berriztagarrietarako pausuak eman behar dira.

EMAKUMEA ETA BERDINTASUNA

- ✧ Berdintasun plan berria martxan jarriko dugu.
- ✧ Emakumeen ahalduztzean aurrera pausuak emango ditugu tailer ezberdinak, irteerak eta erakusketak antolatuz. Emakumearen menpekotasun egoerari modu integralean emango diogu erantzuna eta indarkeria matxistari aurre egiteko zein kasuak identifikatzeko neurriak hartuko ditugu. •
- ✧ Indarkeria sexistaren aurkako jarrera irmoa erakutsi, ekimenak garatu eta neurriak hartuz.
- ✧ Orientazio eta identitate sexual guztien inguruko normalizazioa.
- ✧ Zaintzaren (Nagusiena, umeena, etxearena, ...) inguruko hausnarketa egingo dugu: alternatibak, denbora bankua, arduren partekatzea,...

Akordio honen baitan, Tokiko Gobernu batzordean parte hartzeko eta udal batzorde biren burutza eramateko eskaintza ere luzatu zion EH Bilduri.

Honen gainean ondorengo puntuen arabera elkarlana proposatzen da.

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA:

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak ezarritakoaren arabera, Gobernu Batzordea Alkatearekin eta Udalbatzako kide kopuruaren herenarekin osatzen da. Beraz, Gobernu Batzordea osatzeko egiten dugun proposamena ondokoa da: EAJ-PNVko alkateak, EH-Bilduko bi kidek eta EAJ-PNVko beste bi kidek osatzea.

Udal Gobernuak proposatuko ditu urteroko aurrekontuak udalaren egoera ekonomikoa kontuan izanda. Ezinbestean, alderdi bien programan agertzen diren puntuak, lehentasunezko arloak, aintzat hartu beharko dira ekintza eta proiektuak proposatzerako orduan. Beraz, udal aurrekontuen diseinua elkarlanean eta adostasunez egin beharko da, herri politiken diseinu orokor baten barruan. Hala ere, erabateko lehentasuna izango dute gizarte zerbitzuek, hezkuntzak eta herriaren funtzionamendurako oinarrizkoak diren zerbitzuek aurrekontuen diseinua egiterako orduan. Proposamena udal gobernutik etorriko da.

2016ko aurrekontuei dagokienez, herri politiken diseinua adostu bitartean, EH Bilduk zuzenean kudeatuko lituzkeen batzordeen aurrekontua aurreko urteko berbera izango da gutxienez.

BATZORDEEN BURUTZA IZATEA:

Gure udal taldetik ulertzen dugu ezinbestekoa dela udal talde bien arteko elkarlana Lekeitio aurrera eramateko, proiektu eta baliabide hauek sail guztietan adosteko prestutasuna izanez. Sail horietako biren burutza EH-Bilduk izatea proposatzen dugu: Gazteria Batzordea eta Kultura Batzordea. Sail horietan helburua izango da esfortzuak bat egitea eta talde baten zein bestearen programak uztartzea.

EH Bilduk burutza izango duen bi batzordeetan, koalizioak:

- Aurrekontuaren gestio osoa izango du. Ezusteko beharrianen bat balego, berrikusteko aukera eta adostasunez erabakitzeko aukera egongo litzateke.
- Arloari dagokion programaren kontrola izango du (plangintza zehatz baten bidez).
- Kultur Kaian barnebiltzen diren ezaugarrien arabera jokatzeko jarraituko du, kultura garapenerako sektore klabe gisa kokatzeko. Kultur industriak bultzatu, erraztu eta harremanak egitearen bidea urratu..

Kultur azpiegituren inbertsioetarako beharrianak ere aurrekontu orokorrean txertatuko dira, orain arte bezala.

BALDINTZA OROKORRAK, UDAL TALDE BIEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA EBALUAZIOA

Akordio hau aurrera eramateko erabakia hartuz gero, Jarraipen batzordea sortu beharko da, eraketa politika eta proiektu orokorrak garatzeko eta erregularoki hauen jarraipena egiteko. Hurrez gain, batzorde honen maiztasuna zehaztu beharko da. Dena den, urtean birritan, gutxienez, akordio honen ebaluazioa egingo da. Akordioan adosten diren baldintza eta ezaugarriak apurtutzat ematen badira, akordioa bertan behera uzteko erabakia hartu dezake alderdi bietako edozeinek.

Bi alderdien arteko akordioak ondorengo baldintza orokorrak bete beharko ditu:

- ⌘ Udalaren zorpetze maila jaisten jarraitzea, egoera jasangarria lortu arte. Zorra handitzeko aukera, soilik, herriaren garapen ekonomiko, kultural edo sozialaren mesedetan eragingo duen proiektu bat ahalbidetzeko baldintzapean izango da eta alderdi bien adostasun osoz.
- ⌘ UEMA elkarteko partaide izaten jarraitzea eta Udalbiltzaren mankomunitatean sartzea.
- ⌘ Gatazkaren konponbidean parte aktibo izatea.
 - ⌘ Giza eskubideetan oinarri duen kultura sustatuko dugu.
 - ⌘ Bakea, elkarbizitza demokratikoa eta oroimen historikoa eskuratu nahi ditugu.
 - ⌘ Bide horretan iraganeko sufrimendu eta gertakizun guztiak argitze aldera lan egingo dugu, Justizia trantsizionala sustatzeaz batera.
 - ⌘ Elkarbizitza demokratiko normalizatu baterantz aurrera egiten lagunduko duen jarduna mantenduko dugu
- ⌘ Momentu honetan euskararen inguruan dagoen dinamikan sakondu beharko da. Herri mailako euskararen mahaia, herriko eragile eta erakundeak batuta, euskararen aldeko normalizazioan lan herritarra egiteko eremua izango da.

GARDENTASUNA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA:

Hasi berri dugun legegintzaldi honetan eta herritar guztiek eskatzen duten prozesu parte hartzailearen ereduari jarraituz, informazioa Udalak bere eskura dituen bide ezberdinen bitartez zabaltzeaz gain, EAJ-PNVko eta EH Bilduko udal taldeko guztiok herritarrekin batzartzeko prestutasun osoa izango dugu. Izan ere, gardentasuna da bi alderdien oinarritzko printzipioetarikoa bat.

Ildo honetatik, parte-hartze ordenantzan azaltzen dena osorik betetzeko hautua egiten dugu. Horretarako, ezinbestean ordenantzari onarpena eman behar zaio, udal teknikarien artean ezagutarazi eta beraien eguneroko jardunean txertatu, herritarrekin kontrastea egin ostean. Ordenantza, bere osotasunean bete beharreko arautegia izango da, baina bereziki atal batzuk aipa daitezke:

- ⌘ Erabakiak kontsentsuz hartzeko baliabide zehatzak jarraitzea.
- ⌘ Aurrekontu parte-hartzaileak ziurtatu (zehaztapenak egin beharko dira, egin beharreko minimoak ezarri, zertan erabaki dezaketen herritarrak...).
- ⌘ Batzordeei erabakigarritasuna aitortzea.
- ⌘ Batzordeetan parte hartzeko ezarritako irizpideak errespetatu (batzordeko eranskin moduan agertzen direnak: interes pertsonalak ekidin, erregularitasuna, konpromisoa.... gai pertsonalak lantzen diren batzordeetan salbuespenak egin daitezke).

- ✧ Proiektu handietan herritarren parte hartze zuzena eman eta herri batzarrei erabakigarritasuna aitortzea.
- ✧ Gardentasuna bermatzeko neurriak zorrotz bete. Udal ordezkariak udal informazioa jasotzeko askatasun osoa bermatu.
- ✧ Herri mugimendua aintzat hartu baliabide eta tresnak eskainiz.
- ✧ Gaur egun indarrean dagoen kode etikoa errespetatu eta betetzea.